Otsalla-Febrero
8
Egubena - Jueves
Bilbao, 1934

EUZKADI

ARPIDE-SANEURRIJA

Bilbao'kua... ...	6,00	irko.	iru ile.
Bilbao'atazkua	7,50	"	"
Idazki-Itunmena	62,00	"	urtez
Atzarrijetakuak	100,00	"	"

Beldayen itunduba

XXII urtia | Idazkolea ta Banakolea: Correo, 17, 1.° | 234 Idazkutxa | 17.810 Urrutizkiña | 6.606 zenbakija

Egunekua

Oroigallu bat

Oroigalubak gixon ospetsubei ta notin eukitsubei jasoten yakezela, bai-genkijan.

Guk ezkenkijana, baña, beste au zan: txakuŕei jasoten yakenik.

Orain, baña, bai-dakigu, Nome, Alaska ko ugartekijan "Balto" ixendun txakuŕ ari oroigalu edeŕ bat jaso dautsela irakuŕi dogu-ta.

卐 卐 卐

Nome, Ipaŕ-Amerika'ko Alaska ugartegiko uri bat da.

Eta uri aretan, 1925'gko. uŕtian, eztaŕi -gexo ezein bat bide zala, uri aretako biztanlerik geyenak gexotu-egin ziran.

Gexotu, ta inguru gustijak eduŕez esiŕuta zirala, gexuari uxatuazoteko osakayak zuzenduteko bide azkerik ezebela geratu.

Luŕ-gane ibilterik etzanezkero, axez, egaizkiñetan ibiltia erabagi eben. Eta egaizkiñetan ibilŕen asi ziran, egaizkiñetan osakayak uriratuten.

Zoritxaŕ geyagorako baña, osakaiz beterik joyan egaizkiña, ekaitz buŕundada batek zigoŕtuta, auŕerantz egiteko gauza etzala, luŕagaz bat eginda geratu zan, eldu biaŕ zan uritik 400 aneuŕkin uŕun geratu be.

Zoritxaŕak jota egozan gexuak gaizkatuteko zeozer asmau biaŕ-ta, Amoeta taŕ Joseba eritxon gixonak, eduŕ-gane taŕaz erabilteko naŕa asmau eban, eta urijan ziran zortzi txakuŕ senduenak berari lotuta zirala, osakaiz beterik luŕera jausi zan egaizkiña aurkitzen zan lekurantz egiten asi.

卐 卐 卐

Eduŕ eta lei-gane ziaŕ juate a, gogoŕetan be gogoŕa zan, eta noizik bein eurekanatuten yakezan eduŕ eta axe buŕundadeak aŕnasa barik izten ebezan.

Zortzi txakuŕetatik saspi, ibilŕe luze ta neketsu arek gogoŕuazota, auŕerantz egin gura-ezta geratu ziran.

Ekaitz gustijak bizkaŕeratuta be atzerarik egin ezabana, naŕari lotuta geratu zana ixan zan: "Balto" eritxon txakuŕ bulaŕtsuba baxen adoretsuba ta otzana.

Eta "Balto" zintzuak, zortzi txakuŕei lotu eutsen naŕa, bakaŕik egaizkiña eguan lekuratu eban.

Eta Joseba zuzentzaliak egaizkiñatik naŕaratu eutsazan osakayakaz, bakaŕik Nome'ratu be.

"Balto" zintzua, Nome'n, garale saŕtu zan, eta naŕ-gane bertaratu ebazan osakai aldintsubakaz uri aretako gexuak osatu.

Baña, bera, "Balto" eŕukaŕija, nekiaren nekiaz etenda eldu zan-ta, beriala il egin zan.

¡Gaxua! Nome, bere uri maŕeko biztanliak gaizkatutiaŕen, bere bixija lexaratu...

Nome'ko urijak, orain, ain on aundija egin ixan eutsen "Balto" txakuŕ goragaŕijari eskaŕona erakustiaŕen, bere gomutazko oroigalua jasotia erabagi dau.

Eta "Balto" txakuŕ ospetsubak gaurtik auŕera, Nome'n, oroigalu edeŕa ixango dau.

卐 卐 卐

Oroigaluba, irakuŕle, urlija edo berendijaren ixenari gixaldijetan aiztu barik iraunazoteko bide bat da; eŕderaz "monumento" esaten yakona.

Gixa-irudizko "estatua" esaten yakana be, oroigaluba da, "estatua"-ren iduriko gixon edo beste zeren bataz oroŕuteko jasorikua dalako.

Idazki onen asikeran esan dogun lez, oroigalubok geyenetan, gixon ospetsubei jasoten yakez.

Ospetsutasuna, baña, era askotakua ixaten da: batubena, jakintza-bidez irabazija. Beste batzubena, eŕiketa edo "politika" -bidezkua.

Ukubil-oska ospetsubak egin ixan diranak be ba-dira, baña eukitsutasunian ospetsu-ixena irabazi dabenak be.

Oroigalu-gai diran gustijak baña, gomutaki onegaz saŕituba eztira ixaten, txiruak, apalak, eta gixaŕtian ageŕtuten eztiran ixileko ospetsu asko eta asko oroigalu gomutaki barik geratzen dira-ta.

Nome'ko urijak, baña, orain "Balto" txakuŕ apala ta otzana baxen adoretsubari jasoten dautsan oroigalubagaz, txiruen eta apalen lana ospetsututeko bide bat zabalduten dabela dirudi, aberien aŕtian apalena, otzanena, esanekuena, ta ganera azaŕijena dan txakuŕa, gixakirik ospetsubenak saŕituten diran saŕijagaz saŕitu dabelako.

"Karmen'go Argia"

Aldizkingi begiko au, Zornotza ko Karmeldaŕ lekaide aguŕgaŕijak ilero argiŕaltzen dabena da. Ona emen otsalakuari dagokijon bilabidia:

"Auts eguna. Egi-biribilak. Blas deuna. Eriotza gogoŕa (oleŕkia). Baseŕi-gayak. Eŕi jakintza. Euzkalduna, ilen alde euzkeraz egizu. Zer dirade gure egunak (abestija). Neskatx kementsu bat. Karmel-edestia. Beti zure ondoan (oleŕkia). Izpaŕingi txatalak. Lourdes'ko artzaintxoa aldaretan. Donekuntza bidea. Gazi-gezak.

Irudiak

Blas Gotzain deuna. Doipuru (Aita Santu) Pi XI'gaŕena. Zornotza'ko Karmeldaŕen ikastetxea (azalian)."

卐 卐 卐

Bilabidetik be ikusiko dozube baña, aldizkingi au gaŕantzizkua da, jakingaŕijak diran irakuŕgai edeŕak argiŕaltzen dabezana.

URIBIŤAŔTE'TAŔ IBON.

"ZERUKO ARGIA"

"Zeruko Argia" jantzi baŕijaz yatoŕku. Atsegingaŕija dala ezin ukatu. Urtero baŕiztauten dauskube. Geure kaputxiño maŕagaŕijak jatoŕ-jatoŕak dirala aldizkingiarazuetan.

Ona arki-bidia: Andra maria. Jesus Jerusalen'ko jauretxera María'ren besoetan. Ad te, Domine levavi animan mean. Otsaila. Negugayak. Galde-erantzunak. Guam'dik. Edeŕgaŕiak. Pilipiñeta'ko kistaŕak. Dima'taŕ Perdinanda abea.

Idazlan gustijak onak ba-dira, be, gorenguak Iraizoz'ko Poluikarpa abearenak. Orain aŕte esan dogu, baña baŕiz esango dogu. Dabit bakaldunaren salmuak ebeto euzkeralduko leukezanik eztago. Iraizoz abeak ikeragaŕizko lana dagi. Euzkera sakona, ulerteŕeza. Aba oŕen alde gagoz aspaldijon. Pozez beterik goraldu daruagu. Baña beste oleŕkari bat aipatu daigun. Nor dan eztakigu, "Zaraya" deritxola dakigun-aŕen.

Lizardi zanaren bidez-bide dabil eta Urtzi Jaunak emon dautso edeŕtasuna txastatuteko abo bixja. Izpaŕingi onetan jaŕiko dogu Zaraya aguŕgaŕija oŕen "Negugayak".

Gorenetako oleŕkija. Zorijonak aldizkingi oŕen egiliai.

ONDARROA

LEKEITIO'N.—Igaro dan igandian ikusi gebanez, ozte andija ixan zan emendik Lekeitio'n EUZKADI antzikuskixuna ikusten. Bai pozik etxera etoŕi be antzikuskixun ikuskaŕi ori ikusiŕa.

AGUŔ JAUPARI GASTE BATERI. Geure aŕtian ilabete igaro ta gero aguŕ -egin dausku Gontzalo'taŕ Imanol'ak. Lotazila'ren azken egunetan etoŕi zan geure aŕtera: Uŕte-baŕi egunez emen esan eban bere lenengo jaupa. Argiro agertu eban gaste onek Euzko eŕijari berak daukatson maŕetasuna; lenago be iñoz ikusi dogu emen bera ta. Zorijonak, gaste, zeuri eta baŕa be zeure amari.

GAXORIK.—Ikuŕtonak aŕtuta gaxorik auŕkitzen da Uribaŕi'taŕ Miren Karmele. Geure abeŕkide dan Aramayo'taŕ Joseba 'ren emaztia. Jaunaren naimena bada osatu dadila ainbat lasteŕen opa dautsogu.

ANTZEŔKIJAK.—Kandelerijo egunez eta igandez antzeŕki - jayak egin ziran. Edeŕto antzeztu eben, eta ostiari atsegin ixan yakozan.

ELIZKIXUNAK.— Kandelerijo egunez elixkixun edeŕak egin ziran ertxadonan. Aŕatsaldeko elizkixunian Iriarte'taŕ Eŕoka josulagun abeak itz egin eban, eta edeŕto egin be beti berak oi-daben letz.

OKEŔAK.

(Euzkeltzale-Bazkuna'kuak.)

EUZKO
JEL - ASTEROKO IZPAŔINGIJA
Larunbatetan agiri ixaten da
Euzkelduna: Abertzalia ba'zara, erosi ta irakurri biar dozu asteroko au.

Jesús Ostolaza
BERGARA
卐
FABRICA DE INSIGNIAS DE ESMALTE FINO
AZALIRARRI MIEZKO IKURRIÑEN OLEA

TXIKORO (ACHICORIA) BAKE

EUZKELDUN TXAPEL OLA
Boinas Elósegui
TOLOSA

JEAN BARBIER

ICHTORIO - MICHTERIO

IPUIN - MIPUNAK

(Lapurdieraz)

13.—BERHO GUZIEN GAINETIK...

Behin batez, heŕi batean, ama-alaba batzu bizi ziren elgaŕekin, eta sorgin fama bazuten biek. Neskatorik ez muthilik, nehor ez zezaketan bil etcherat.

Aldi batez, bertze asko aldiz bezala, bazabiltzan beraz alde guzietan, muthil baten galdez. Jo ezkeŕ, jo eskuin, eta nehork ez ethoŕi nahi!

Azkenean, soldata izigaŕi bat hitzemanik, biltzen dute berek nahi bezalako muthiko gazte bat, ona, prestua, langilea. Eta lasteŕ laketu zitzaion hantchet gure muthilari; hambertzeraino non, arte labuŕik barnean, etcheko-alaberkin ezkontzeko urhatsetan baitzen. Besoak arin, gogoa arinago, gauaz eta egunaz kaŕaskan ari zen beraz lanean.

Bizkitaŕtean, noizik behin, ilhundura zerbeit heldu zitzaion bihotzera, bere etcheko-andreen sorgin-famaz orhoitzen zelarik, eta, orduan, ongi nahiko zukeen jakin, ama-alaba hek sorginak othe ziren egiazki...

卐 卐 卐

Aŕats baten, alegia eta lokartu egiten du sukaldeko zizeluaren gainean. Orentsu baten buruko, gau erdiek jotzen dute heŕiko ezkila-doŕean. Eta, ordu berean, chutitzen dire ama-alahak. Hurbiltzen zaizkote muthikoari; behatzen diote ichil ichila. Eian lo dagon ikusteko, puliki inhaŕosten dute gero biek. Berea gogoan, ichil ichila hura ere, muthila ez da mogitzen; lokartuarena egiten du aintzina, zuŕunga handiago baten oraino.

Orduan, ahal bezen echtiki, bien aŕtean altchatzen dute suaren azpiko burdin zabal handia, eta handik atheratzen gero eltze ttipi, ttipi bat. Sorgiñen urin bereziaz gain gaineraino kasik bethea zen eltzea. Urin -gesal ha harekin toŕa eta toŕa, gantzutzen dire bi emaztekiak, erdi kantaz diotelarik:

"Berho guzien "gainetik",
"Hedoi guzien "azpitik",
"oren bat harat,
"Oren bat hunarat!"

Eta, haimbertzenarekin, haizea bezen zaŕu, fiŕindan badoazi biak suphizkiari goiti.. "Akelaŕerat" bazoazin.

Jauzian, berehala, chutitzen da gure muthikoa. Su-azpiko burdinaren azpian beŕiz emana, kausitzen du eltze ttipi michsteriozkoa. Akelaŕera behaŕ duela harek ere, urin michteriozkoaz haŕaskatzen du bere burua, ithoka diolarik:

"Berho guztien "azpitik",
"Hedoi guzien "ainetik",
"Oren bat harat,
"Oren bat hunarat!"

Ah! Baia?... Makuŕ ikasiak edo sobera ithoka eŕanak, makuŕ bethi eŕepikatuak ziren sorgin-hitzak... Giza-gaicho muthikoa! Haize-zirimola berak hartzen du hantchet eta brichtakoan eremaiten su-pihizkiari goiti.

Berak manatu bezala, lehembiziko berhorat heltzean, nahi bazuen eta ez, sist sartzen da sasiaren azpian, lahar guziak alde orotarik lotzen zaizkola. Eta handik nolazpeit atheratu deneko, indaŕ berak hartzen du eta eremaiten hedoi handi batzuen "gainera"; handikan gero bertze berho batetara, eta gero beŕiz hedoietara, eta gero oraino berhoen azpira...

Oren baten buruan, azkenean, leher egina, dena odoletan, jainkoak daki non ibilirik, heltzen da Akelaŕera.

Hobeki eginen zuen gaizoak etchean egonik! Akelaŕen, bere bi etchek-andreak lehen, sorginak oro gainerat ethoŕirik, zuŕak hartu zituen, mila kaŕasien erdian. Eta, gero, lephoa eta bizkaŕa hausteko menean, izerditan, odoletan,

Bertho guzien "azpitik"
Hedoi guzien "gainetik",

oren bat eman zuen, beŕiz heŕirat heltzeko..

卐 卐 卐

Lorietan bainindagon, haren ezteiak lasteŕ jan behaŕez, ez ditut jan batera, muthikoak neskatchari despeida zalukara emanik, goiz hartan berean...

(Bizkayeraz)

13.—SASI GUZTIEN GANETIK...

Bein baten, eŕi baten, ama-alaba bi bizi ziran alkaŕegaz, eta sorgin entzutea ei eben Ez neskatorik ez moŕoirik, ezin izaten eben inor (otseintzat) etxerako loŕtu.

Aldi baten, beste aldi askotan legez, ba -ebiltzan beraz alde guztietarik moŕoe baten eske. Jo ezkeŕera, jo eskoera, eta inok ez etoŕi gura!

Azkenean, soldata andi-andi bat agindurik, lortuten dabe eurak gura ebelako mutil gazte bat, ona, prestua, beaŕgina. Eta lasteŕ egin yakan edeŕ antxe gure moŕoyari; egin bere, aldi gitxigaŕenean etxeko zlabeagaz ezkonduteko gertakunetan eibilteko ginoan. Besoak arin, gogoa arinago, gauez eta egunez jo ta ke eragoyon beaŕean.

Oŕaitiño, noizik beñean, gogo-ilun aldi bat etoŕten yakon biotzera, bere etxeko -andreen sorgin-entzuteaz gomutauten zanean, eta, orduan, ondo gura izaten eukean ama-alaba aek benetan sorginak ete ziranentz jakin...

卐 卐 卐

Gau baten, loak aŕtu ebalakoa legez egiten dau, eskaratzeko txixiluaren ganean. Ordubetegaŕenean edo, gabeko amabiak joten dabe eŕiko kanpantoŕean. Eta, ordu berean, zutunduten dira ama-alabak. Uŕeratuten yakez mutilari; begiratuten dautse isil-isilik. Lo dagonentz ikusteko, astinduten dabe gero biak, polito. Bere asmoa gogoan, isil-isilik abere, moŕoyak ez dau zirkinik egiten; loak aŕtu dabelakoa legez egiten dau beti, zuŕuka andiagoakaz ara bere.

Orduan, alik eta isilen, jasoten dabe bien aŕtean suaren azpiko burdina zabal andia, eta gero ateraten dabe andik lapiko txiki -txiki bat. Sorginen berarizko koipeaz ia gan-ganeragino beteta egoan lapikoa. Koipegazi aregaz igurtzi eta igurtzi, gantzututen dira andra biak, erdi kantetan diñoelarik:

"Sasi guztien "ganetik"
"Edoi guztien "azpitik",
"Ordubete arantz,
"Ordubete onantz!"

Eta, geyago barik, aizea baizen arin, an doaz biak uŕumada baten keodian (tximinian) gora... "Akelaŕera" joazan.

Bereala, ankaŕ baten, jaŕten da zutunik gure mutila. Idoroten dau, su-azpiko burdinearen azpian baŕiro iminda, misteriozko lapiko txikia. Berak-bere Akelaŕera joan beaŕ dauala-ta, igurtzen dau bere burua koipe misteriozkoaz, itoka diñolarik:

"Sasi guztien "azpitik",
"Edoi guztien "ganetik",
"Ordubete arantz,
"Ordubete onantz!"

A, bai, e?... Okeŕ ikasita edo laŕ itoka esanda, ostera eta baŕiro bere okeŕ esaten zituzan beti sorgin-beŕoak... Mutil gizagaisua! Aize zuŕumilo berberak aŕtuten dau bertan, eta bristada baten ba-daroa keodian gora.

Berak agindutakoanez, leenengo sasira eldutean, gura-nai-ez, sist saŕtuten da sasiaren azpian, laaŕ guztiak alde danetatik oratuten dautsela. Zelan edo alan andik urteten dauaneko, berak indaŕak aŕtuten dau eta ba-daroa edoi andi batzuen "ganera"; andik gero beste sasi batera, eta gero baŕiro edoyetara, eta gero ostera bere sasien azpira...

Ordubetegaŕenean, azkenean, leeŕ eginda, dana odoletan, jaungoikuak daki nondik ibilda, elduten da Akelaŕera.

Oba eukean gaisoak etxean egon Akelaŕean, bere etxeko-andra biak lenen, sorgin guztiak ganera etoŕirik, zurak aŕtu zituzan, mila gaŕaiziren erdian. Eta, gero, lepoa eta bizkaŕa austeko zorian, izerditan, odoletan,

Sasi guztien "azpitik"
Edoi guztien "ganetik"

ordubete emon eban, baŕiro eŕira elduteko..

卐 卐 卐

Pozaŕen nengoan, aren ezteguetara lasteŕ joateko ustez; ez naz joan bapere, mutilak neskeari ezetza arin baño arinago emon eutsan-eta, goiz atan bertan...

Bizkayeratzalea,
GAŔO'TAŔ BERNARTA M.

GAZTELERRI'TIK

SANEUŔIJAK.—Ona, Valladolid-aldekuak:

Garija, 100 anaztaki (kilo), 47'50 lauŕleko.
Garagaŕa 100 ana., 30 lauŕleko.
Gari-uruna, 100 ana., 63 lauŕleko.
Biŕiña, 100 ana. 42 lauŕleko.
Zai txikija, 100 ana. 32 lauŕleko.
Zai latza, 100 ana. 29 lauŕleko.
Gaztaya ana. bakotxa, 2,25 lauŕleko.
Zezena, ilda, eŕaldia, 17 lauŕleko.
Zezena bixirik eŕaldia, 8,50 lauŕleko.
Txaŕija, ilda, aŕua, 42,50 lauŕleko.
Txaŕija bixirik aŕua, 35 lauŕleko.
Txaŕikumatxu bakotxa, 60 lauŕleko.
Aŕautzak, ambikua, 3 lauŕleko.
Ardaua, ontxija (litrua), 0,45 lauŕleko.

Geyenak orain ilabete baño karuago dagoz; gaztaya asko merkiago; uruna ta zayak baŕdin.

Artxua, be, merke dago, orain ugari dira-ta. Emen neguban edozenbat bildots ixaten dirala ekixu, irakuŕle; lenenguak zilan (semendijan) ikusten dira

EGURALDIJA. — Oraňarte negu otza, euritsuba ta lañotsuba ixan dogu emen; ointxe asi dira egun eguzkitsubak. Iraungo al yakuz! Gau otzak ixango doguz, baña, eguneko eguzki edeŕa aŕtu al ixanezkero, ezkagoz txaŕto.

BELGUNTZETAN. — Belguntza edo misiñotan gabiltz baŕiro, be. Astion "Reinoso de Cerrato" eŕijan diñardugu; 29'gn. "Soto de Cerrato,,'ra joko dogu; eta otsala-4'gn. "Valle de Cerrato,,'ra. Eŕitxubok Cerrato deretxon Palencia luŕaldian dagoz, Venta de Baños'tik uŕun barik.

Eŕijok Carrion de los Condes-aldekuak baño gaiztuaguak dira, Ibon adizkide. Anguetzaz Euzkadi'n idatzi leuzuna egija danezkero, igaŕi oneik zelakuak ixan leŕekezan...

Otoi, irakuŕle, onbideratu dadiŕezantzat!

NABAŔIZTAŔA.

Uaŕa.—Cerrato-aldeko notiñak on-onak ixango eztirana ziñestuten dautzut, eta nik lez, Gaztela-eŕijen baŕi dakijen enparaukuak be. Au ta gusti be baña, emen batzuk, "España católica,,'ren ixena, odeyetaraño jasota imiñiko dautzube.—*Ibon*

Euzkotar umien aldez

"Ezin zeinkezuke ezpiaŕ au jasan. Ni, zaŕa naizen aŕen oratuko nintzake.. —Zuk irakuŕtzen ez dakizula... ¡eta nik ere ez!
Ricardo Palma.
"La gran noticia".

Beste iñon gertatzen eztan beste gauza negargaŕi bat ere gertatzen da gure ikastoletan. Itz-egiten eztakiten elia irakuŕten eta idazten erakusten diogu umiai, eta itz-egiten dakitenik ez.

Au dala-ta, begira zer gertatzen zayon gure eŕiari.

Gutxik erabiltzen duan elia, eta iñoiz ondo ikasikoez duan elia irakuŕtzen eta idazten bai daki.

Baña berak ondo dakian ama-elia, bere buruko oldozmenak eta bere biotzeko nabaimenak ondo azaltzen dituan izkuntza edo elia irakuŕtzen eta idazten estaki.

Onelaxe, euzkotaŕ euzkeldunak, beroki biren artian otzak iltzen bezelaxe daude. Esaterako, gure baseŕitaŕ batek eŕderazko izpaŕingi edo periodico bat aŕtzen ba du, irakuŕi lezake baña zer esaten duan ulertu ez.

Eta euzkerazko bat artzen ba'du zer esaten duan edeŕki uleŕtuko leuke baña ezin irakuŕi lezake.

Ara, nik askotan esan oi det: "Bai dirudi gauza abek, euzkotaŕok aŕi-aro edo eŕderaz "edad de la piedra" esaten zayon arotik eŕten ez dezagun asmatuak ete diran edo."

Auxegaitik azkenengo idaztian esaten nuan bezela "Euzko-Ikaskuntza" Donostia'ko "Euzko-Pizkunde" "Euzkaltzaleak" eta beste onelako Bazkunai aŕen dagiotek: Geure umiakaitik, geure eŕiagaitik, eta batez-ere geure ele-ama euzkeragaitik, iritzi dezatela Gipuzkoa ta Biz kai'ko auzo-ikastoletan umiai euzkeraz irakurten eta idazten erakustia.

Beste jakintzari ez dio onek ezertxo kalterik egiten, eta geure asaba zaŕak ain maiteki guri laga ziguten izkuntza edeŕaren aldez gauŕko euzkotaŕok egin gentzakian gauzarik txikienetarikuen bat dala uste det.

卐 卐 卐

Gure eŕiak, bere berezko jakintza ta uritasuna (eŕderaz esateko euzko-folklore y civilización vasca) galdu ditu.

Euzkotaŕ zaŕak eŕi jakintza oraindik zerbait bai dute baña umiak baterez.

Nik, nere denbora gustian ikastolako umiai euzko-eŕi, jakintzadun esaera auxe bakaŕ-bakaŕik entzun diotet "Ostiral deun eguna jayotzeko baño iltzeko egun obiagoa dala".

Gure eŕiak galdua du ba bere jakintza jatoŕa, baña beste jakintzarik ez du artu. Gauza bat daguan lekuan beste bat ipintzeko, lenengotikan bat ori kendu egin biaŕ izaten da. Gero ikusi ia bestea ipintzen dan edo ez.

Eta etxe zaŕa bera botatzia, beŕia gora jasotzia baño eŕazagua dan bezela, gure eŕiak galdu du berezki jakintza, baña bezte jakintzarik ez du sortu.

Au da: etxe zaŕa bota du luŕera baña beŕirik ez du jaso.

Augaitik degu nere ustez gauŕ egunian ain eŕi atzeratua antziñako euzkotaŕakin berdindu ezkero.

¿Nork ezagutu lezake, gauŕ egunian diruaz bere autaŕkia saltzen duan euzkotaŕa, ain Lege garbiak eta onak egin eta bete zituan abendaren semetzat?

Bere edestirik ez dakiten eta bere bururik ezagutzen ez duten eŕi gustiak egiten dutena egin du gure eŕiak ere.

Bere oitura garbiak utzi, bere indaŕak galdu, bere jakintza aztu ta albo eŕien gauza onik aŕtu ez.

Guk bai degu esaera bat au adierazteko. Euzkera astu ta eŕderarik ikasi ez."

Ikasi ditugu baña, aŕtu ta geure etxean saŕtu erdel-eŕien gauza txaŕ geyenak.

AŔITOKIETA.

France'ko izkanbillak

France'ko izkanbilak dauken gaŕantzija ezin ixilean gorde geinke. Ludiko lateŕijetan sentitzen dan urduriŕasuna ezta makala, baña France'n ezer ezala jazoten uste geban. Uste au gustijena zan. Orain, ostera, astrapalada baten duaz notiñak. Stavisty'ren diru-lapuŕketari buruz izkanbila oneik soŕtzen dirala uste dabenak, okeŕ dagoz. Gaitz onek sustraj sakonak daukaz. Lateŕijak aspiŕik aŕak janda dagoz, bateko demokrazijak dirala, besteko ditadurak dirala. Amazortzigaŕen eungijan jazoten ziranak, orain jazoten dira.

Eungi aretan eŕijaren agimena etoŕan. Soŕtu-baŕi zan eta jaunen auŕka eragoion. Orain bestera dabil. Eŕijaren eskubetatik, gixon gurenen eskubetara duaz agintza -bide gustijak.

France'n, be, buŕuka onek minduten dauz notiñak. "L'Action Francaise,,'ren inguruban bilduten diranak, dei berezija egin eban oraintsu. Eŕegetaŕak ez-eze fatzistaŕak dira. Onein onduan, ostera, "L'Humanité" izpaŕingikuak d u a z, komunistak diran -aŕen. "Le Populaire" izpaŕingijak, sosolistoen ixenean dei-egin eutsen alderdikidiai. Oŕa oŕ zelan gertau eben areňungo matxinadea. Daladier jauna latetxera eldu zanian, zaratea ta izkanbila baño etzan. Batzuk Marzellesea eta bestiak Internationaŕ deritxon abestija, iñok iñor ulertu eziñik ebiltzan. Daladier'en itzak entzuten ziran unian, txaidian, be, astrapalada galantak ziran. Saint-Lazare geltokijan eta Ipaŕ'ekuan izkilu-otsa baño etzan entzuten.

Eun mila notin batzaŕtu ziran, ¿bai?, eta gustijak latetxeruntz abijatu ziran. Arein auŕka ezeguan eŕtzañik ez iñor. Jauŕbatzakuak gogoŕ uŕten biaŕa ixan eben, besteŕik ezegualako. Ogei edo geyago ilta geratu ziran. Zauriŕubak, ostera, anei baziran.

Jazokun negaŕgaŕi oneik dirala-ta, Daladier'ek uaŕ baten bidez, uztu dau bere jauŕlatza. Europa'ko gudean ixan ziranen kaltez tirorik eleukiela jaurti nai, eta aldendu da eŕkaltzainpuru ori. ¿Zer egingo daben france'taŕok?

¿Daladier atzera agintaritzara igongo ete-da? Buruzagi edo generalakaz jauŕbatza baŕija eratuko daula diñoe, Oŕelan ditadura bat geyago soŕtuko litxake Europa'n. Eta udi osuan sentiko litxakez ditadura oŕen ondorenguak. Beti ixan da, ixango bere bai, France'ko lateŕi ori ludiko buruba. Oŕko kiñubak, igikunak, beriala zabalduten dira ludibarna.

Mussolini eta Hitler'en alderdikidiak eztauke bide eŕezagorik euren asmuak baŕeyatuteko. Europa'ren ordurik laŕijenak onexek dira. Stavisky baten gora -berak baño gaŕantzi andijagua dauke egun oneitan jazoten diran izkanbilak.

¿Parantzetaŕak neketu ete-dira eŕi-agintaritzaz? ¿Aldunbatzaŕak eztirala gauza ezetarako erakusten emon dabe? Parlamentubak ankaz-gora jausiko dira oiz.

Onen ondoren zer etoŕiko dan ezin jakin. Sosialistak eta anarkistak batzaŕtu dagoz. Erabagi gurenak aŕtu ei-dabez. Alderdi oneik indaŕtsubak dira. Onduan dabiltz eŕegetaŕak. Gai onen zain gagoz.

L.

LAZKANO

AGATE DEUNA.— Antzin-antziñako oitura edeŕari jaŕaituaz Agate deunaren, atsegun gauean, gazte talde bat ibili zan deun aundienen aintzako abesti edeŕak abesten. ¡Edeŕki gasteak! aŕtu itzatzute nere txaloak, ain edeŕki egon ziñetelako, eta ¡auŕera! gure oitura gaŕbien aldez.

ELEIZKIZUNAK.— Ilonen 2'gaŕenean, Ama neskutzaren gaŕbikunde eguna zala ta bere aintzaz, eleizkizun bereziak izan ziran, eleiz nagusian.

Igarotako igandean beŕiz, gure lekaiden eleizan amaiketan eman zuten. Ordizia'ko notario izan zan Bidauŕeta'taŕ Silberi (Goyan bego) jaunaren gogo aldez bere adizkideak, eskiñitako jaupa abestua. Eleizkizun oetan ozte asko batuzan.

SESTAO'KO.—Gure neskatotxoen aŕtean ituntasun aundia utziaz, Sestao (Bizkaya)'ra iges egindu. Etxebeste'taŕ Estepane irakasleme (maestra) gaste azkaŕak. Beronek utzi daun utsunea beteko daunak bera bezin ona eta langilea izango ete da? Naiko lan, gure neskatotxoak diotenez... ¡Aguŕ! Etxebeste'taŕ Estepane, azkaŕa, eta ondo bizi.

IÑAUTERIAK.—Datoŕen igande astelen eta asteaŕte atsaldetan (J. L.) iñauteri (carnaval) jayak dirala ta, Bernartz doneren lekaimeen eleizan uŕtero lez, aita Buruñuŕdun batek txonitzak egingo ditu. Ia ba aldegun guziak, batzen geran itz donea entzutera.

IGANDETAN EZTA SALDUKO EZEŔ.—Entzun degunez igandetan trabenatan ez da salduko ezeŕ etxera eramateko, au da "patate" oligo, akeita eta abaŕ. Eŕi txiki oetara ere eldu dira, lagioek, orain-di zeŕ ez ote da elduko... Beraz emakumeak ba dakizute, igandean alkaŕi aitzakia emana egotea alpeŕik izango da t, larunbatean esnatu.

EGURALDIA.—Au latza dogu mendi eta soroetan eduŕ zuri-zuria bai dago.

¡Eduŕa bezin zuria
baŕitz gogo edo anima guzia...!

IRAMENDI.

EA

ANTZEŔKI-DEYA. — Datoŕen igandean otsalaren amaikan gaŕeko 8 ta erdijetan Batzoki onetako areto nagosijan emongo-da "Neskazaŕ" deritxon antzeŕkija, iru ataleko ikuskixun gustiz edeŕa eta uste dogu aŕbo-eŕijetako notin asko elduko dala an ikustera.

Bertoratu gura dabenak eskatu txaŕtelak ainbat eriñen Batzokira.

GALARTZA'TAŔ JOSEBA.

Aranburu'tar R.
AZAL ETA TXIZ-BIDIAK
Fueros, 5, 3.° DONOSTIA

Artua eta babia txikitutzeko makiñak;
Txomin Olano'k
Saltzen ditu, merke
Plaza de las Escuelas, 10 g'n - Donostia

INGI BILDEGIA
Papelería del Oria
MORAIZ'TAR JOSEBA MIRENA
Teléfono, 154 TOLOSA